



**GAIA: Aldi baterako enplegua egonkortu eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion lanpostuak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia.**

**Izendapen proposamena**

2024ko martxoaren 19an LAGA Mankomunitateko web orrialdean Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren baitan, aukeratzeko ekitaldirako deia egin zen, horretarako 5 eguneko epea irekiz.

Deialdiaren 10.1 oinarria kontuan hartuta, behin lanpostu hutsak hautatzeko tramitea bukatu, epaimahaiak organo eskudunari igorriko dio, espediente osoarekin batera, izangaiak izendatzeko edo kontratatzeko proposamena. Proposamenean egonen dira, puntuazio handiena izateagatik, eskaintako lanpostu kopuruan sartzen diren izangaiak.

Epaimahaiak ondoren aipatzen diren pertsonen aldeko izendapen proposamena egin du:

Plaza zenbakia	Lanpostua	Jardunaldia	Proposatutako izengaiak
3	Gizarte hezitzailea	OSOA	M <sup>a</sup> Junkal Otxotorena Sagastibeltza
8	Gizarte langilea	%50	M <sup>a</sup> Junkal Otxotorena Sagastibeltza
9	Familia langilea	%75	Amaia Alduntzin Estanga
10	Familia langilea	%50	Carmen Saizar Telletxea
11	Gizarte hezitzailea	%50	Edure Lamuedra Rodriguez
12	Gizareratze programako teknikaria	OSOA	Maite Perurena Loiarte

Deialdiaren 10.2 oinarria kontuan hartuta, toki erakundearen atariko deialdiaren web fitxan izendapen proposamena argitaratu eta **10 egun balioduneko** epearen barnean, izangaiak agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:



- a) Nortasun agiri nazionalaren kopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.
- b) Osasun txosten ofiziala, karguaren eginkizunak betetzea eragotziko liokeen akats fisiko nahiz psikiko edo eritasunik ez duela erakusten duena.
- c) Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela berezia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik. *(II. Eranskina)*
- d) Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela. *(II. Eranskina)*

Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiri horiek aurkezten ez dituzten izangaiak eta, orobat, deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen ez dutenak ezin izanen dira izendatu edo kontratatu, eta baliorik gabe geldituko dira haien jarduketa guztiak, deusetan galarazi gabe beren eskabideko faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna.

Leitzan, 2024ko martxoaren 27an

Epaimahaiak,

LEHENDAKARIA  
Maider Amantegi Urdalleta

BOKALA  
Xabier Gartzia Azpirotz

IDAZKARIA  
Maider Castilla Elarre